

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA  
ZIENTZIEN FAKULTATEA**

*Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako  
Irakasletzan*

***Master Bukaerako Lana***

**Testuak lantzeko eta literaturarekiko  
zaletasuna bultzatzeko proposamen  
didaktikoa**

**Ikaslea: Jara Berrio Eskiroz**

Tutorea: Juan Jose Zubiri Lujanbio

**Espezialitatea: Euskara eta Literatura**

**Ekaina, 2022**

## **Laburpena**

Ikasgelan literaturarekin lan egiteko moduari buruz luzez eztabaidatu da, eta eztabaidak oraindik ere indarrean dirau. Halaber, literatur testuak ustiatzeko eta lantzeko ikaskuntza-metodo ugari eta askotariko eredu didaktikoak diseinatu dira. Horrekin guztiarekin, lan honek literaturak hezkuntza-sisteman izan dituen tratamenduen ibilbide historikoa erakutsi nahi du, hezkuntza-sisteman izan dituen funtzio anitzak aztertzeko. Horretarako, gaur egun arte baliatu diren metodologiak eta indarrean egon diren eredu didaktikoen aurkezpen laburra eskainiko da. Era berean, eredu bakoitzaren indargune eta ahuleziak zehazten saiatuko da, eta literaturak ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetan izan ditzakeen erronken aurrean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan literatura lantzeko proposamena azalduko da. Hala, mikroipuinen bidez idatzizko eta ahozko adierazpen trebetasunak indartzera bideratutako proposamen didaktikoa garatu da, eta bide batez, harekin ikasleak irakurtzearen eta idaztearen plazerera eta literaturarekiko motibazio eta zaletasunera hurbildu daitezkeen nahi da.

Hitz gakoak: mikroipua, ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena, sormena, literaturarekiko zaletasuna.

## **Resumen**

A lo largo de los años se ha debatido mucho sobre cómo trabajar con la literatura en el aula. Asimismo, se han diseñado diversos métodos de aprendizaje y varios modelos didácticos para explotar un texto literario. Este trabajo pretende mostrar un recorrido histórico de los diferentes tratamientos que ha tenido la literatura en el sistema educativo. Para ello, por un lado, se ofrecerá una breve descripción de las diferentes metodologías y de los modelos de educación literaria que han estado en vigor, y por otro, se intentará analizar los puntos fuertes y débiles de cada método con el objetivo de desarrollar una propuesta didáctica diseñada para trabajar la literatura en el aula con alumnas y alumnos de secundaria. La mencionada propuesta está encaminada a potenciar habilidades de expresión escrita y verbal por medio del microrrelato, y dicho sea de paso, intentar acercar a las y los estudiantes al placer de la escritura y de la lectura.

Palabras clave: microrrelato, expresión verbal, expresión escrita, creatividad, inclinación hacia la literatura.

## **Abstract**

There has been much discussion over the years about how to work with literature in the classroom. Different learning methods and didactic models have been designed to exploit a literary text. The aim of this work is to show a historical overview of the different treatments that literature has had in the educational system. For this purpose, on the one hand, a brief description of the different methodologies and models of literary education that have been in force will be offered, and on the other hand, an attempt will be made to analyse the strengths and weaknesses of each method with the aim of developing a didactic proposal designed to work with literature in the classroom with secondary school students. The aforementioned proposal is aimed at strengthening the skills of written and verbal expression through the micro-story, and, incidentally, to try to bring students closer to the pleasure of writing and reading.

Key words: micro-story, verbal expression, written expression, corporal expression, creativity, inclination towards literature.

<b>Aurkibidea</b>	
<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>1. MARKO TEORIKOA</b>	<b>6</b>
1.1. Abiapuntua	6
1.2. Literatura eta hezkuntza	6
1.3. Literaturaren didaktikaren ibilbidea	7
1.3.1. Eredu erretorikoa	7
1.3.2. Eredu historikoa	8
1.3.3. Testu-eredua: testu-iruzkina	9
1.3.4. Literatura-hezkuntza	10
1.4. Mikroipuina ikasgelan lantzearen ondorio positiboaren arrazoiak	11
1.4.1. Egungo gazteen literaturarekiko atxikimendua	11
1.4.2. Generoaren hautapenaren arrazoia eta haren ezaugarriak	12
<b>2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA</b>	<b>14</b>
2.1. Testuingurua	15
2.1.1. Ikastetxea	15
2.1.2. Kokapena	15
2.1.3. Ikasgela	16
2.2. Mikroipuinak lantzeko proposamena	16
2.2.1. Gaitasunak eta kompetentziak	16
2.2.2. Helburuak	17
2.2.3. Metodologia	18
2.2.4. Edukiak	18
2.2.5. Jarduerak	20
2.2.6. Denboralizazioa	25
2.2.7. Ebaluazio irizpideak	25
<b>3. ESPERIENTZIA ETA APLIKAZIO DIDAKTIKOA</b>	<b>26</b>
<b>4. ONDORIOAK</b>	<b>28</b>
<b>5. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>31</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>33</b>

## SARRERA

Literaturaren didaktikaren historia bide ugaz eta askotariko eztabaidaz josirik ageri da. Hezkuntza-sisteman sartu zen une beretik, hainbat erabilera eta funtzio izan ditu. Literatura irakaskuntza ereduak, sortzen, aldatzen eta moldatzen joan dira, eta egun ere hala jarraitzen du; *Literatura-hezkuntza* delakoak zehazten dituen helburuak lortzearen eredu egokienaren bila.

Datozen lerroetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza literatura lantzeko diseinatu den proposamen didaktikoa aurkeztuko da. Proposamenaren asmoa laburki aipatzearren, ikasgelan literatura ahalik eta modu eraginkorrean lantzea da helburua. Hau da, haren bitartez ikasleek ahoz zein idatziz adierazteko estrategiak beraganatzeaz gain, aukeratutako testuok euren ikuspegi kritikoa eta sormen literarioa garatzeko baliagarriak izatea, eta bide batez, literaturarekiko zaletasuna bultzatzea. Hala, klasean lantzeko aukeratu den generoa narrazio laburra izan da, aurrerago ikusiko diren ezaugarriak arrazoi, ikasleekin modu eraginkorrez eta motibazioa bultzatzeko genero aproposa dela ikusi baita.

Hala, lehenik eta behin, lan honen ardatz nagusia eta abiapuntua azalduko dira eta literaturaren eta hezkuntzaren harremanaz mintzatuko da. Ildo berean, historian zehar literaturaren didaktikak izan duen ibilbidea aztertuko da eta orain arte baliatu diren metodoen ezaugarri nagusiak aurkeztuko dira.

Jarraian, proposamena lantzeko aukeratu den testuinguruaren gaineko zenbait datu eskainiko dira. Hala nola, ikastetxearen historia laburra eta hura kokatua dagoen eremuaren inguruko informazioa. Honekin batera, proposamen didaktikoaren nondik-norakoak aurkeztuko dira; hots, zein gaitasun landuko diren, horrek dituen helburu didaktikoak, jasotzen dituen eduki eta jarduerak, eta zein ebaluazio-irizpideren arabera eramango den aurrera.

Azkenik, proposamen didaktikoaren aplikazioaren balorazioa egingen da eta, amaitzeko, literaturaren irakaskuntzaren gaineko gogoeta eskainiko da ondorio orokor gisa.

# 1. MARKO TEORIKOA

## 1.1. Abiapuntua

Lan honen abiapuntua *Argia* aldizkarian argitaratutako “Nola egin aurre ikasgelan testuliburuaren aginteari” (Matxain, 2015) artikuluan datza. Testuak, nagusiki, hiru galderen gainean hausnartzeko gonbita egiten du, eta hain zuzen ere, itaun horien erantzunaren bilaketa izan da honako azterketaren suspertzailea. Autoreak planteatzen dituen galderak honakoak dira: ea gaur egungo gazteek zergatik duten euskal literaturaren inguruko hain ezagutza urria, literatura irakasteko baliatzen ditugun metodoak eraginkorrak ote diren eta literaturarako zaletasuna bultzatzea hezkuntzaren ardura den edo ez, hurrenez hurren.

Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculum legean adierazten den bezala, euskal literatura euskara irakasgaiaren barnean lantzen den gaietako bat da. Hala ere, badirudi irakasleak, oro har, literatura irakasteaz baino, hizkuntzaren alderdi formalez eta ikasleen euskara maila hobetzeaz arduratzen direla eta, horrexegatik, maiz, “euskal hizkuntza” eta “euskal literatura” bereizturik lantzen diren alorrak dira. Gauzak horrela, euskara irakasleek beharrezkoa lukete gai horren inguruan gogoeta egitea, izan ere, literatura irakastea euren arduetako bat izanen da eta harekiko duten ikuspegiak erabat baldintzatuko du nola eta zein helbururekin landuko den.

Honekin guztiarekin, hurrengo ataletan literatura eta hezkuntzaren arteko harremanaz mintzatuko da literatura lantzeko bestelako aukera aurkeztuko da.

## 1.2. Literatura eta hezkuntza

Literaturaren didaktikaren erronkarik nagusietakoa hezkuntzak dituen helburuak gizartean gertatzen diren aldaketetara egokitzea izan da. Era berean, aurrerapauso teorikoak egin diren heinean, hezkuntza-praktikek horietara egokitzeko beharra izan dute eta kontuak zaildu egiten dira literaturaz ari garenean. Gizarte-ordezkaritzaren, haren balioen eta ideologiaren alorrean literaturak betetzen duen rola, bai eta ikuspegi kolektibo bat eraikiz kultura instituzionalizatzeko moduan duen partaidetzak ere, honako ondorioa dakarte: kultura-ekoizpeneko eta gizarte-kohesioko mekanismoetan gertatzen diren aldaketak literaturak hezkuntzan duen funtzioan islatzen dira eta, ondorioz, literaturaren helburu didaktikoetan eta ikasgelan landuko diren praktikeetan ere islatuko dira (Colomer, 1996).

Gauzak honela, esan daiteke gaur egun, literaturaren irakaskuntza literatura-hezkuntzaren irudikapen egonkor berria sortzeko erronkaren aurrean dagoela,

hezkuntzan programatu daitezkeen helburuak zehazteko eta horiek hobekien bete ditzaketen hezkuntza-jarduerak eta tresnak baliatzeko.

Nire proposamenari ekin baino lehen, komenigarria da, alde batetik, literaturaren irakaskuntzak izan duen bilakaerari eta horretarako erabili diren metodoei erreparatzea eta, bestalde, ikasgelan izan duten eragina ikertzea, labur bada ere. Hala, egin dezagun historian zehar literaturaren didaktikan baliatu diren ereduaren errebaso txikia.

### **1.3. Literaturaren didaktikaren ibilbidea**

#### **1.3.1. Eredu erretorikoa**

Ordena kronologikoari jarraituz, lehenengo metodoa eredu erretorikoa da, jatorria gizarte greko-latindarrean duena, hain zuzen ere. Eredua indarrean egon zen XIX. mende osoan zehar, XX. mendeko lehen hamarkadetan gainbehera iritsi zen arte.

Hasiera batean, erretorika eta poetika ahozkotasunera mugatzen zen, baina XIX. mendeak idatzizko literaturara lekualdatzea eskaini zuen. Kontzeptu aldaketa ideia liberalen eta hezkuntza-planen erreformen testuinguruan sortu zen, eta ondorioz, garai horretan erretorika arau batzuen aplikazio zurruna izatetik zientzia gisa ezartzera igaro zen. Horrekin batera, gustuari, sentimenduari eta norbanakoaren iritziari lekua eman zitzaion. Literatur teoriako lanetan estetikaren ardura agertzen hasi zen, eta neurri handi batean, oinarri artistiko horrek eragin handia izan zuen kontzeptu horien pertzepzioaren aldaketan (Martínez Ezquerro, 2017: 192).

Metodoa zertan datzan ongi ulertzearen, Gabriel Núñez (2016) hitzak ekarriko ditut: eredu honen funtsezko ezaugarria erretorikaren arauak ikastea eta eredu klasikoak barneratzean oinarritzen da, hau da, “esate-onaren” arauak barneratzean, klasikoak kanonizatzean –bereziki greko-latindarrak– eta ongi idazteko eta hitz egiteko horiek garatu zituzten formak imitatzean.

Erretorikak hainbat alderdi azpimarratzen ditu. Gustuaren formakuntzaren beharra, estiloa barneratzeko arauen ezagutzaren beharra eta irudimena lantzeko prozesuaren beharra, besteak beste. Izan ere, eredu horrek irudimena eta ideia berriak adierazteko gaitasuna “gustu onaren” funtsezko elementutzat definitzen ditu (Blair, 1816, *apud* Núñez, 2016). Núñez eta Campos Fernández-Fígaresen (2005) esanetan, corpus teoriko hori praktikan jartzen da imitatzeko modukoak diren ereduak ikasiz. Hala ere, eskola-praktika zehatzetan, modelo hori ikasleek buruz ikasten zituzten arauak eta formak kopiatzera lerratu zen eta, honekin batera, eredu erretorikoak literatur-konbentzioen ikaskuntza baztertu zuen

eta ikasleria moraletik gidatzeko asmoz, erlijioarekin zerikusia zuten maximak zabaltzeko baliatu zen.

### **1.3.2. Eredu historikoa**

Hezkuntza-sistema modernoa Errromantizismoak eta liberalismoak bultzatutako XIX. mendeko ideien babesean jaio zen eta burgesiaren ideal eta balio pedagogikoetan oinarrituta zegoen. Literaturaren didaktikaren eredu berriak ordura arte indarrean zegoen eredu erretorikoa alboratu zuen eta eredu historiko-positibista sendotzen hasi zen (Núñez, 2016).

Metodo berri horrek literatur sorkuntza nazio bateko kultura osoa ulertzeko bide erreal gisa ulertzen zuen; literaturak hizkuntza eta kulturarekin batera, identitatea definitzeko balio du eta. J. Fuentesen (2013) esanetan, gaur egun oraindik ere ikasgela gehienetan indarrean dagoen eredu hori sakonki hierarkizaturik dago. Izan ere, itxuraz problematikoa ez den diskurtsoa transmititzea du helburu eta mezu hori zabaltzen duten autore eta lan adierazgarrienen aurkezpenean datza.

Beste batzuen artean, hona hemen Compagnonek (2008) egindako baieztapenak, eredu didaktiko honi buruz aipatutako ideia berresteko balio dutenak:

[...] asentado en la creencia falsa de que los autores seleccionados son representantes de todo un pueblo, espíritu o época, sin atender a la variabilidad social de voces o puntos de vista que o bien no llegaban a la literatura o bien no fueron consideradas dignas de estudio. Se convierten así unas voces hegemónicas en universales, acallando a la demás, y simplificando nuestra concepción sobre la historia y sobre nosotros mismos.

(Compagnon, 2008: 25)

Espainiar literaturari dagokionez, eredu historikoa estatuko hezkuntza-sisteman literaturaren historiaren lanak egitearekin batera indarrean sartu zen eta gutxi gorabehera XX. mendearen bigarren erdira arte iraun zuen. Hezkuntzan, lehenengoz, zehazki, Gil de Zarateren *Literaturaren Historia*-rekin (1844) txertatu zen (Núñez, 2016). Historia horiek guztiak burgesiak lantzen zituen, euren nazionalitatearen kontzeptua sendotzeko eta finkatzeko helburuarekin. Eredu horren xedea hobeki ulertzeko, hona hemen Campos Fernández-Fígares ikerlariak emandako definizioa: “la educación de las clases subalternas, en manos de la burguesía, es fundamental para que aquellas lleguen a asimilar como propia la ideología de sus enseñantes” (Campos Fernández-Fígares, 2010, *apud* Núñez, 2016).

Mota horretako eskuliburuak erabiltzeak zuzenean aukeraketa eta, beraz, bazterketa prozesu batera garamatza. Gizarteak, oro har, hezkuntzan zabaltu nahi duen ideologia



Testuak lantzeko eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko proposamen didaktikoa

politikoarekin eta memoria historikoarekin bat egiten duten autoreak hautatuko ditu eta gainerako idazleak ahaztuko ditu.

Laburbilduz, estatu nazionalen eraikuntzak kultura-ondarea ezagutzea eskatzen du eta, Idurre Alonsoren (2018) iritziarekin bat eginez, erromantizismoak eta positibismoak ezagutza hori erraztu zuten, literatura nazio berrien ideologiaren isla gisa ulertzen baitzuten. Era honetan, literaturaren irakaskuntzari funtzio berri bat eman zitzaion; herrialde bakoitzeko egile eta obra adierazgarrienen ezagutzarekin nazio kontzientzia sortzea, alegia, eta hala, literaturak herrialde baten kulturaren ikuspegi partziala eta baztertzailea aurkeztea lortu zuen.

### **1.3.3. Testu-eredua: testu-iruzkina**

Testu-irudiaren ikuspegia 60ko hamarkadan nagusitu zen, formalismoaren eta estrukturalismoaren gorakadarekin batera (García, d.g.). Estrukturalismoak literaturaren irakaskuntzari egin zion ekarpenetako bat literatur diskurtsoaren berezko kategoriak identifikatzea eta kategorien funtzionamendua aztertzea izan zen (Todorov, 1971, *apud* Alonso, 2008) eta ezaugarri horien ezagutzarako ezinbestekoa da literatur testuen azterketa egitea, hots, testu-iruzkina egitea.

Esan daiteke gaur egun ere indarrean dirauen eredu horrek irakurleak rol aktiboa izan dezan eskatzen duen lehenengo metodoa dela; hala ere, bere mugak dituela onartu beharra dago. Gabezien artean Alonsok (2008: 49) honakoak zehaztu zituen: “besteak beste, kategoria horien egiaztapenak ez du biderik ematen testuaren zentzuaz hausnartzeko, eta gainera, eskolan egiten diren azterketak “atariko hurbilketak” izaten dira, hau da, ez direla azterketa sakonak izaten”.

Bestelako aditu batzuek ere –hala nola J.M. Marín Martínezek (1989)-- bat egin zuten garatutako metodo berriaren hutsetan. Marín Martínezen (1989: 405) aburuz, historiaren transmisio zurrunean oinarritutako literatura-irakaskuntzan urteak eman ondoren, ikasleengan irakurketarako interesa pizteari, literatura-artearen sentiberatasuna lantzeari eta adierazpenean trebatzeri buruzko emaitzen eskasia ikusirik, testuen analisiak egiten hasi ziren. Era horretan ikasgaiaren ikaskuntzan espero ziren ondorioak lortzen zirela bermatu nahi zen, eta proposamen metodologiko berria aurrekoa baino eraginkorragoa bazen ere, azken urteotan kritikak jasotzen ari da eta badirudi etorkizuneko ikasketa-planetan izaera hegemonikoa galduko duela.

Horrez gain, autoreak aipatzen du iruzkinaren aplikazioarekin ikasleak irakurle kritiko eta sentikor bihurtuko zirela pentsatzea ideia okerra dela eta eraginkortasun eza

metodoaren aplikazioari eta testu-iruzkina Literaturaren Historiaren didaktikaren gehigarri gisa lantzeari dagokiola adierazten du (Marín Martínez, 1989: 405).

Dena den, horrelako barne hurbilketek irakurketa eta idazketa uztartzeko aukera ematen dutela aipatzen du, testuko kategoriak identifikatzeak irakurleak literatur testua idazteko dituen tresnak eta baliabideak garatzea dakarrelako eta, ondorioz, ikaslearen sormena lantzen eta aberasten lagunduko duelako (Alonso, 2008: 49). Beste era batera esanda, testu-iruzkinean oinarritutako ereduak irakurleen ulermen-trebetasunak garatzeko eta ikasleen literatura-gaitasuna garatzeko baliabide gisa sortu da.

#### **1.3.4. Literatura-hezkuntza**

80ko hamarkadatik aurrera, aurrerapen teoriko-literarioei eta psikopedagogikoei esker, ulermen prozesuarekiko eta pentsamendu kulturala eta testuartekotasuna eraikitzekeko prozesuekiko interesa piztu da. Horregatik, literaturaren irakaskuntza tradizionala alde batera utzita, ikaskuntza-prozesu aktiboan oinarritutako prestakuntza literarioa lehenesten saiatu dira arloaren dozentzian aritutakoek. Zehatzagoa izateko, interesa irakurketa-prozesura eta ikasleengan irakurtzeko ohiturak garatzeko estrategiak bilatzera bideratu da literaturaren didaktika (García, d.g.).

Literatura-hezkuntzaz mintzo garenean, testuen elementu harrapaezinez ari gara eta, ondorioz, irakurketaren esperientziaz. Núñez-en hitzetan, ereduaren helburua ikasleek gaitasun literarioa gara dezaten da eta irakurleak testuan falta diren elementuak, zehaztu gabeko tokiak edo uneak, edota eskaintzen ez den informazioari buruzko hipotesiak eta usteak aurreratu behar dituen momentu beretik, obra irakurlearen esperientzia gisa ulertzen da. Ondorioz, literaturaren pedagogia berriaren eginkizun nagusia irakurleak testuak irakurtzeko, ulertzeko eta interpretatzeko gai izan daitezen prestatzea izango da. Horretarako, ikaskuntza eta irakurketa esperientzia behar dira, hau da, literatura-hezkuntza literatura irakurketa gaitasuna lortzera bideratzea. Horrez gain, kontuan hartu beharko litzateke tekniken ikaskuntzak ez dituela ikasleak irakurtzearen plazeretik urruntzen, literaturarekiko plazera eta atxikimendua ezin baitira erakutsi (Colomer, 1998).

Ikuspegi horren arabera, literaturaren didaktika ez da ikuspegi historizista baten ildotik jorratuko, zeinetan garai eta autore klasikoei buruzko informazioa mugatua den eta ikasleen interes eta motibazioetatik aldentzen diren. Testu-iruzkinean oinarritutako ereduaren xedea irakurtzeko gaitasuna garatzea da, gaitasun horrek barne hartzen duen prozesua garatzea, hau da, testua ulertu, interpretatu eta bereganatutako ezagutzarekin pentsamendu kulturala eta kritikoa eraikitzea.

Testuak lantzeko eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko proposamen didaktikoa

Honengatik guztiarengatik, metodo hori praktikan jartzearen zailtasunik handienetakoa prestakuntza-maila altua eskatzen duela da. Irakurketa-esperientzia izatea ezinbestekoa bilakatzen den heinean, literatura-irakurketa gaitasuna eskuratu behar da –hainbat teknika eta baliabide barneratuz– irakurtzearen ariketa beraren atsegina eta plazera ahaztu gabe.

#### **1.4. Mikroipuina ikasgelan lantzearen ondorio positiboaren arrazoiak**

Jarraian narrazio laburra ikasgelan lantzeak izan ditzakeen onurak aztertuko dira. Aurrerago zehaztuko den bezala, hainbat dira genero horren lanketa errazten duten faktoreak eta horiek guztiak mikroipuina beraren ezaugarriei dagozkie.

Dena den, generoa definitzeari eta ezaugarriok zehazteari ekin baino lehen komenigarria litzateke, gainera bada ere, gaur egungo gazteen irakurketa ohiturak ikertzea eta literaturarekiko nolako lotura duten aztertzea; zenbait datuk generoaren aukeraketaren alderdi positiboetan eragin zuzena izan baitezake.

##### **1.4.1. Egungo gazteen literaturarekiko atxikimendua**

Gazteen literatura-zaletasuna azkeneko urteetan pil-pilean egon den gaia da, hainbat iritzi eta, sarritan, kontrajarriak direnak bildu dituen. Idazlea eta EHU-ko literatura irakaslea den Xabier Etxanizen (2017: 1) ustez, gero eta gutxiago irakurtzeko joera egoteaz gain, okerrago irakurtzeko ohitura ere badago eta, haren esanetan, «teknologia berriekin, gaur egungo gizarte babesle honekin, irakurketaren eta esfortzuaren baloreak galtzen ari gara». Aitzitik, Etxanizek adierazi du beste zenbaitek uste dutela teknologia berriekin irakurtzeko modu berriak agertu direla eta, gutxiago irakurri baino, beste era batera irakurtzen dugula.

Ikuspuntuak ikuspuntu, ezin uka dezakegu ditugun askotariko euskarriekin jendearen irakurketa modua aldatu egin dela. Egunerokoan ehundaka mezu irakurtzen ditugu *Whatsapp* bezalako aplikazioetan, sare sozialetan testu mota asko kontsumitzen ditugu, aldizkari eta egunkari digitaletan argitaratzen den guztia kontsulta dezakegu, *E-book*-ak liburu asko eskuragarri izateko aukera ezin hobea ematen digu, etab. Honen guztiaren atzean benetan zer kontsumitzen ari garen kontuan hartu beharko genuke, izan ere, egunero testuak irakurtzen ditugun arren, testu literarioei dagokienez, horietako asko ezingo genituzke literaturatzat hartu. Horretarako, jakina, bakoitzarentzat literatura zer den eztabaidatu beharko genuke, baina, arestian aipatu legez, hori ez da lan honen egin beharra.

Arestian planteatuko auziari berriro ekinik, José Amato (*apud* Vélez, d.g.) irakasleak egindako inkesta testuratu nahi nuke. Nerabeei literatura ez irakurtzeko zituzten arrazoiak

gainean galdetu zitzaizenez, erantzunen artean honako hauek izan ziren gehien errepikatu zirenak:

1. Mugikorrarekiko eta ordenagailuarekiko adikzioa izatea.
2. Arreta luzez mantentzeko zailtasunak edukitzea.
3. Eskola osteko eginbeharrak izatea.
4. Eskolaz kanpoko jarduera ugari izatea: musika, kirola, etab.
5. Interes eta motibazio falta agertzea.
6. Irakurtzeko leku lasai baten falta izatea.

Emaitzei erreparatuz, ikus dezakegu gazteen interes eta motibazio falta ez direla literatura-zaletasunean eragina duten faktore bakarrak. Oraingo gizarteak bultzatzen duen bizimoduak ere zerikusirik badu horretan. Komunikabide masiboek, uneoro, kirola eta bestelako ekintzak egitearen garrantziaz ohartarazten gaituzte; aitzitik, eginkizun horien guztien artean ez diote literatura irakurtzeari men egiten, eta, hortaz, ez dute harekiko zaletasuna bultzatzen laguntzen. Halaber, azken ideia horri, bestelako arazoa gehitzen zaio; arreta luzez mantentzeko zailtasunekin lotura zuzena duena.

Datu hauek guztiak kontuan izanik, narrazio laburren ezaugarriei erreparatuko zaie eta horiek ikasgelan lantzeak izan ditzakeen alderdi positiboak aurkezteari ekingo zaio.

#### **1.4.2. Generoaren hautapenaren arrazoia eta haren ezaugarriak**

Urteetan zehar zailtasun handiak aurkitu dira ikasgeletara literatur testuak eramateko, sarritan arrazoitzat testuen konplexutasuna emanez. Literatur lan orok bere bereiztasunak ditu eta ezaugarri horiek egiten dute testua berezi eta bakar. Horri dagokionez, nabarmendu behar da literatura eskoletan sartzeak onura handiak ekar ditzakeela hezkuntza-prozesuan –irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak-. Horregatik, gai horren inguruan gogoeta egitea komenigarria litzateke, era honetan, testuak aukeratzeko eta lantzeko orduan sor daitezkeen oztopoak gainditzeko proposamenak ekartzeko.

Ondorengo ataletan aurkeztuko den proposamen didaktikoa aurrera eramateko narrazio laburren generoa hautatu da. Mikroipuinak ipuinaren aldaeretako bat dira eta ezaugarri nagusi laburtasuna eta bizitasuna dituzte. Ematen zaien izendapenari dagokionez, hainbat modutan aurki daiteke; hala nola, *mikroipuin*, *mikronarrazio*, *mikrofikzio*, *istorio labur*, *fikzio labur*, etab. Halere, egun gehien erabiltzen den forma *mikroipuin* edo *mikrokontakizun* litzateke (Álamo Felices, 2010).

Autore batzuek adierazi dutenez (Encinar eta Valcárcel, 2011: 12-13), testu mota hori nagusiki bi irizpideren gainean eratzten da: batetik, arreta narrazioak eskaintzen duen diskurtsoan metatzen da eta, bestetik, diskurtsoa iradokizunerantz jaurtitzen du, irakurleari interpretaziorako aukera zabala emanez. Horren harira, komenigarria deritzot González Cobasek, Madrilgo Unibertsitateko irakasleak, narrazio laburren inguruko ezaugarrien zerrenda testuratzea; generoa osoki definitzeko baliagarria izateaz gain, haren bertuteei erreparatzeko ere balio baitu.

Hona hemen generoaren ezaugarriak laburbiltzen dituen zerrenda (González, 2014: 106-107):

1. *Laburtasuna*. Eskola saio baten programazio-eskakizunak kontuan hartzen badira, oso interesgarria izan daiteke narrazioak oso luzeak ez izatea; eskola bakar batean hainbat mikroipuin erabiltzeko aukera ahalbidetzen baitute.
2. *Fikzionalitatea*. Fikzionalitatea baliagarria suerta daiteke idazketa originala eta ikasleen sormena garatzeko tresna gisa. Izan ere, fikziozko ekintzei, egoerei edo gertaerei buruzko testuak irakurtzeak eta idazteak hizkuntzaren alderdi ludikoa garatzen laguntzen du.
3. *Narratibotasuna*. Eguneroko bizitzan etengabe lehendik gertatutakoa edo istorio bat aipatzen da, eta beraz, zeregin hori sustatzen dituzten baliabideak erabil daitezke mikroipuinetan.
4. *Kondentsazioa*. Kondentsazioak narrazioan jorratzen den gaiaren dentsitatea eta intentsitatea dakar, oso lerro gutxitan diskurtso osoaren esanahia eta adierazkortasuna agertuz.
5. *Gai anitzak*. Mota askotariko mikroipuinak aurki daitezke: fantasiako kontakizunak, alderdi errealistatik sortutakoak, metaliterarioak, beldurrezkoak etab. Hain ugariak izateak testuen erabilera ere anitza izatea dakar.
6. *Kultura*. Hizkuntza baten eta hizkuntza horren testuinguruaren adierazpen kulturalak direnez, klasean ikasgaiaren alderdi kultural eta soziala lantzeko erabil daitezke.
7. *Osotasuna*. Kontakizunaren testuingurua laburra den arren, ezaugarri hori ez da mugatzailea. Hau da, testu osoak dira; hizkuntza eta komunikazio-egoera bati erantzuten diote eta funtzio jakin bat betetzen dute.

8. *Eskuragarritasuna*. Mikropuina ikasleak literaturara gerturatzeko zubia izan daiteke. Konplexutasun txikiagoa duten narrazioetatik hasiz, literatur-lan konplexuagoetara igaro daiteke.
9. *Ikasgelako dinamikak*. Lankidetzaren metodologia zein banakoa ahalbidetzen dute, eta horrek ikasgelan lantzea errazten du.
10. *Aldakortasun pedagogikoa*. Ustiapen-modu anitzak onartzen dituzte, mikroipuinek bereziki idatzizko trebetasunak indartzeko baliagarriak diruditen arren, ahozko adierazpena, gramatika, lexikoa edota hizkuntzaren erregistro eta funtzioak sendotzeko erabil daitezke.
11. *Pragmatikoa*. Alderdi pragmatikoa lantzeko aukera ematen dute, klasean ironia, umorea, zentzu bikoitzak, hizkuntza-elementu jakin batzuek mugatzen dituzten inferentziak etab. jorratu baitaitezke. Alderdi horretan aurretik aipatutako diskurtsoaren dentsitate eta kondentsazioak ere asko lagun dezake.
12. *Prestasuna*. Narrazio laburrek eskuragarritasun handia agertzen dute, izan ere, sarean esaterako, presentzia nabarmena dute.

Mikrokontakizunen ezaugarri eta bertuteen zerrenda luzea ikusirik, aproposa eta egokia suerta dakioke ikasgelan literatura lantzen duen irakasleari. Gainera, arestian aztertu bezala, ikasleen literaturarekiko atxikimendu edo motibazio faltaren aurrean eraginkorra izan daitekeen genero baten aurrean gaudela esan daiteke. Alde batetik, lehen begiratuan ikasleak testua osoa bistaratzen duelako –hasieratik amaierara–, eta onartu beharra dago, hori onuragarria dela literaturarekiko interes handirik agertzen ez duenarentzat. Bestetik, gazteek arreta luzez mantentzeko zailtasunaren gaiari berriro helduz, mikroipuinen laburtasunak, intentsitateak eta bizitasunak ikasleen beharretara egokitzen laguntzen du, pixkanaka pixkanaka, aipatutako gaitasuna garatu eta sendotzen hasteko.

## **2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

Atal honetan diseinatu den proposamen didaktikoa aurkeztuko da. Lehenik, testuinguruaren gaineko zenbait datu eskainiko dira. Besteak beste, proposamena zein ikastetxetan egin den, hura non kokatuta dagoen eta bertako ezaugarri soziolinguistikoak aurkeztuko dira, eta azkenik, zein mailatan eta ikasgela nolakoa zen azalduko da.

Jarraian, ikasleek eskuratu behar dituzten gaitasun eta konpetentziak zehaztuko dira eta proposamenaren helburu didaktiko zehatzak laburtuko dira. Horrekin batera, aipatutako

Testuak lantzeko eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko proposamen didaktikoa

helburuok lortzearren landuko diren edukiak erakutsiko dira eta, azkenik, osatu den jarduera sorta eta saioen planifikazioa azalduko da, ebaluazio irizpideak barne.

## **2.1. Testuingurua**

Arestian aipatu bezala, proposamen didaktikoa zertan datzan azaltzeari ekin baino lehen, hura non aplikatzeko diseinatu den azalduko da. Zehazki, proposamena Tafallako Garcés de los Fayos Ikastolako DBH 4. mailan lantzeko prestatu da; aurrerago aztertuko den moduan, ikasgela egokia ikusi baita sortutako jarduera eta ariketak praktikan jartzeko.

Luzapen gehiagorik gabe, datozen lerroetan testuinguruaren zehaztapenak eta ezaugarriak eskaintzen dira.

### **2.1.1. Ikastetxea**

Garcés de los Fayos Ikastola euskara eta euskal kultura ardatz dituen gurasoen irakaskuntza kooperatiba da. Ikastola den heinean, ikasleek euskara eta euskal kulturaren ezagupen sakona izan dezaten eta hizkuntzarekiko atxikimendu afektiboak sustatzea ditu helburu nagusi. Ikastetxearen eginkizun nagusia ikasle euskaldun, arduratsu, kritiko, autonomo, bizi diren gizartearekiko integratu eta konprometituak lortzea da, eztabaidan eta koordinazioan oinarrituko direnak.

### **2.1.2. Kokapena**

Garcés de los Fayos Ikastola Tafallan kokatuta dago, Nafarroako Foru Erkidegoko erdialdean, Erriberriko merindadean. Merindadeko hiriburua ez den arren, Tafalla bertako hiri populatuena da, eta 2020. urteko Estatistika Institutu Nazionala (EIN)-ren ikerketa datuetan oinarrituta, 10.621 biztanle ditu.

Nafarroako Euskararen Foru Legearen 18/1986 arabera, 2017. urtera arte Tafalla eremu ez-euskalduneko udalerrria zen, eta ondorioz, hizkuntza ofizial bakarra gaztelania. Hala ere, 2015. urtetik aurrera Foru Legea moldatu zen eta aldaketa horiek eremu ez-euskalduneari ere, sare publikoan, euskaraz ikasteko aukera ahalbidetu zuten –betiere eskaera kontuan harturik–. Hala, Tafallan ez ezik, merindadeko bestelako herri batzuetan ere D ereduko ikasgelak sortu dira sare publikoan. 2017an, Nafarroako parlamentuak eremu mistoa zabaltzeko proposamena tramiterako onartu zuen eta Tafalla eremu mistoan egotera igaro zen.

Ikastetxearen kokapen zehatzari dagokionez, Ikastola bi eraikinetan banatuta dago. Batetik, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapak (3-12 urte artean) eskaintzen diren

eraikina, La Plana kalean kokatuta dagoena. Bestetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (12-16 urte artean), Javier Osés kalean. Ikastetxearen barne-antolaketari dagokionez, aipatzekoa da, zuzendaritza, orientazio eta administrazioaren gune fisiko lehenbiziko eraikinean dagoen arren, astean bitan DBH-ko eraikinera lekualdatzen direla; bi eraikinen arteko komunikazioa eta kudeaketa-harremanak errazte aldera.

### **2.1.3. Ikasgela**

Egindako programazioa D ereduko DBH 4. mailan lantzeko prestatua dago. Ikastolan DBH 4-ko klase bakarra dago eta 20 ikaslek osatzen dute. Taldea nahiko homoginoa dela esan daiteke, alderdi kulturala, soziala eta ekonomikoa kontuan hartzen bada, behintzat. Gehienak tafallarrak baitira eta gutxi batzuk inguruko herrietakoak: Puiu, Erriberri, Beire eta Artaxoa, besteak beste.

Norbanakoaren aniztasunari arreta jarriz gero, dislexia duen ikasle bat dagoela aipatu beharra dago. Honen aurrean, bai zentroaren zuzendaritzak, orientazio zein irakasle taldeek ikaslearen beharrei erantzuteko egokitzapen plana burutzea beharrezkoa da. Zailtasunak dituen jarduerak burutzeko laguntza eskaini -idatzizkoan eta irakurriaren ulermenean- eta nerabearen garapenaren jarraipen zehatza egin behar da, egokitzapenak testu idatziak ekoizteko eta ulertzeko gaitasuna garatzeko eraginkorrak izan daitezen.

## **2.2. Mikroipuinak lantzeko proposamena**

### **2.2.1. Gaitasunak eta konpetentziak**

Ezer baino lehen, aproposena Nafarroako Komunitateko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak zehazten dituen gaitasun eta konpetentziak ezagutzea litzateke; izan ere, horrek finkatzen dituen markoen artean mugitu beharko dugu proposamenaren helburu zein edukiak diseinatzeko. Dokumentuak honela definitzen ditu gaitasunak: «Gaitasunak ekintza eraginkor bat lortzeko batera mobilizatzen diren abilezia praktikoek, ezagutzen, motibazioen, balio etikoen, jarreraren, emozioen eta beste zenbait osagai sozialen eta portaerarekin loturiko osagaien konbinazioa dira» (24/2015 Foru Dekretua).

Era horretan, jarraian 24/2015 Foru Dekretuarekin bat eginik, diseinatu den proposamenean ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak laburbiltzen dira:

- *Hizkuntza komunikazioa*
  - Ahozko zein idatzizko adierazpen gaitasunak lantzea eta garatzea.



Testuak lantzeko eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko proposamen didaktikoa

- Irakurketa eta idazketa prozesuek barne hartzen dituzten elementuen jabekuntza eta garapena; alderdi gramatikaetik, lexikotik, morfosintaktikotik eta testutik kanpo dauden osagaietatik begiratuta.
- *Kontzientzia eta adierazpen kulturalak*
  - Kontzientzia eta ikuspegi kritikoa garatzeko literaturak duen balioa.
  - Adierazpen kulturaletan literaturak egin ditzakeen ekarpenak aintzat hartzea.
- *Ekimena eta ekintzailletza*
  - Banaka zein taldeka ekimenerako gaitasuna garatzea, ardurak nor bere gain hartzen ikasiz eta beharrezkoa denean kooperazioz lan eginez.
- *Gaitasun digitala*
  - Informazioa bilatzeko edo kontsultatzeko euskarri digitalak erabiltzen ikastea eta eskura dituzten iturri anitzak baliatzeko gaitasuna eskuratzea.

### **2.2.2. Helburuak**

Curriculumak ezartzen dituen helburuak honako hauek dira:

Ikasleek kulturaren oinarriko elementuak bereganatzea, bereziki haren alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoan; ikasleengan ikasteko eta lan egiteko azturak garatu eta sendotzea; goragoko ikasketetan eta lan munduan sartzeko prestakuntza ematea; eta bizitzan nola herritar moduan beren eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko prestakuntza ematea (24/2015 Foru Dekretua).

Horiez gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparen xedeak ere aipatzen ditu. Azken hauek ikasleen gaitasunak garatzea dute helburu eta honako hauek dira proposamen didaktikoan zehazki landuko direnak:

a) Narrazio laburren inguruko eduki teorikoen lanketa eta generoaren gaineko ezagutza orokorra eskuratzea.

b) Ahozko zein idatzizko adierazpen gaitasunak garatzea.

c) Euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea

d) Sormen artistikoa ulertzea eta adierazpeneko eta irudikapeneko askotariko baliabideak erabiltzea.

e) Euskal literaturaren eta, oro har, literaturaren garrantziaz ohartzea eta harekiko zaletasuna bultzatzea.

f) Idazketa eta irakurketa osagarriak diren prozesuak direla jabetzea eta sormenean eta irakurtzearen plazerean eragin zuzena izan dezaketela ohartzea.

g) Espiritu ekintzailea eta norberarenganako konfiantza lortzea: parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, etab.

h) Diziplina, bakarka zein taldeka lan egiteko gaitasunak garatzea.

i) Oinarrizko trebetasunak garatzea informazio iturrien erabileran, zentzu kritikoz, ezagutza berriak eskuratzeko.

### **2.2.3. Metodologia**

Diseinatu den proposamen didaktikoak jarraituko duen metodologiari dagokionez, ikasleek nagusiki bi eratan lan egingo dute. Alde batetik, ikaste prozesu autonomoa garatzen laguntzen duen banakako lanaz arituko dira –zehazki, sekuentzia-didaktiko baten bitartez– eta bestetik, metodologia kooperatiboan oinarritutakoan.

Era berean, aipatu beharra dago proposamenak idatzizko zein ahozko adierazpena modu bateratu eta integratuan lantzeko aukera ematen duela, literaturaren funtzio anitza ikusarazteko bidean. Hala, esan bezala, hasieran ekimen pertsonala sendotzeko baliagarriak izanen diren jarduerak landuko dira eta, gerora, talde txikitan nahiz handitan jarduteko ekintzak proposatuko dira.

### **2.2.4. Edukiak**

Jarraian, 24/2015 Foru Dekretuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailarako zehazten dituen edukiekin bat eginik, proposamen didaktikoan landuko diren alderdiak aurkeztuko dira:

1. *MULTZOA: Ahozko komunikazioa* – Entzutea eta ulertzea; Hitz egitea eta elkarrizketan jardutea
  - Entzutea eta ulertzea:
    - Ahozko testuak ulertzea eta interpretatzea.

Testuak lantzeko eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko proposamen didaktikoa

- Testuaren zein hizlariaren ulermen orokorra lantzea. Hots, komunikazio asmoa eta testuaren zentzua atzematea.
- Hitz egitea eta elkarrizketan jardutea:
  - Gelan sortzen diren elkarrizketetan parte hartzea eta adierazi nahi den mezua argitasunez, egokitasunez adieraztea eta edukia koherentziaz eta kohesionaturik aurkeztea.
  - Alderdi prosodikoak lantzea. Hala nola, intonazioa, etenak, tonua, bolumena, gorputz hizkuntza, etab.

## 2. *MULTZOA: Idatzizko komunikazioa – Irakurtzea eta Idaztea*

- Irakurtzea
  - Ulermen teknikak eta estrategiak ezagutzea eta irakurtze prozesuan erabiltzea.
  - Testu idatziak ulertzeaz gain, horiek interpretatzea eta baloratzea.
  - Testuaren mezu orokorra ulertzea. Testuaren asmo komunikatiboa eta mezua ondorioztatzea.
  - Irakurritakoaren gaineko ikuspegi kritikoa garatzea eta gogoetara bideratutako jarrera agertzea ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.
- Idaztea
  - Idatzizko testuak ekoizteko estrategiak eta teknikak lantzea.
  - Testua sortzeko eman diren arau, baldintza edo kontsignei egoki erantzutea eta ikasitako baliabideak aplikatzea.

## 3. *MULTZOA: Hizkuntzaren ezagutza*

- Hitza
  - Ahozko eta idatzizko testuen hitz eta adierazpideen esanahiak lantzea eta horiek egoki erabiltzea.
  - Testu ekoizpenerako hitzen arauen erabileraren gaineko hiztegiak eta bestelako informazioa iturriak baliatzea.
- Erlazio gramatikalak

- Arau ortografiko eta gramatikalak ezagutzea eta idazketan komunikazioa eraginkorra izan dadin balio dutela ohartzea.
- Diskurtsoa
  - Lantzen ari den testu generoaren ezaugarriak identifikatzea eta ezagutzea.
  - Testu lokailuak eta barne erreferentziako mekanismoa gramatikalak eta lexikoak lantzea eta erabiltzea.
- Hizkuntzaren aldaerak
  - Komunikazioa egoeraren arabera erregistroak desberdintzea eta horien erabilera egokiaren garrantziaz ohartzea.

#### 4. *MULTZOA: Hezkuntza literarioa*

- Irakurketa plana
  - Euskal literaturako eta literatura unibertsaleko zenbait autore eta lan aztertzea eta ezagutzea –narratio laburrak edo ipuinak landu dituztenak–.
  - Asmo literarioa eta didaktikoa duten euskarazko testuak irakurtzea eta ulertzea.
  - Hainbat egitura eta ahots narratibo dituzten lanak lantzea.
  - Irakurritako testu literarioen gaineko ikuspegi kritikoa garatzea.
- Sorkuntza
  - Asmo literarioko testuak –mikroipuinak edo narratio laburrak– idaztea.
  - Ikasgelan landutakoa aintzat harturik testuak ekoiztea eta teknikak, estrategiak eta baliabide literarioak egoki erabiltzea.
  - Sormen eta irudimen gaitasuna garatzen laguntzen duten zenbait ariketa lantzea.

### **2.2.5. Jarduerak**

Proposamen didaktiko honek hainbat ataletan banatzen diren jarduerak eta ariketak eskaintzen ditu eta 5 saiotan egiteko prestatu dira. Horrez gain, jarduera batzuk banakako lana eta ikaslearen autonomia garatzen laguntzeko diseinatuak daude eta beste zenbait, ordea, lan kooperatiboa bideratzeko eta elkarlanean aritzean kontuan hartu behar diren alderdiei erreparatzeko baliagarriak dira. Hala, jarduerak honako bost ataletan multzokatzen dira:

1. atala: *Sarrera*

Ikasgelan landuko diren edukiei eta egingen diren jarduerari sarrera ematean datza. Generoaren aurkezpena egitea eta datozen saioetan landuko diren ariketen helburuak azaltzea. Horrekin batera, bukaerako xedea edo ikasitakoaren azken asmoa zein den aurkeztea eta hura nola baloratuko den azaltzea, eta halaber, ikasgelan baliatuko diren metodologiak aipatzea. Hau da, ikasleei nola lan egingo duten erakustea.

2. atala: *Edukien ezagutza teorikoa*

2. atala generoaren ezaugarrien lanketa eta ezagutzari eskainiko zaio. Horretarako, narrazio laburren ezaugarriak banaka aztertuko dira eta horiek identifikatzeko eta barneratzeko baliagarriak diren testuak aztertuko dira. Bestalde, ikasleek generoan sakondu duten zenbait euskal idazle eta autore unibertsalen lanak ezagutzeko aukera izango dute.

3. atala: *Planifikazioa*

Landutako alderdien gaineko errepasso laburra egin ostean, eskuratu eta barneratu diren tresnak aplikatuz testu ekoizpena planifikatzen laguntzen duten jarduerak proposatuko dira.

4. atala: *Aplikazioa*

Atal honetan ikasleek aurreko saioetan aztertutako eduki teorikoak praktikan jarri beharko dituzte. Asmoa aurrera eramatearren, hasieran, helburu zehatzei erantzuteko ariketak proposatuko dira eta, ondoren, azken ekoizpenaren kontsigna eskainiko zaie.

5. atala: *Balorazioa eta ebaluazioa*

Balorazioa eta ebaluazioa programazio didaktikoaren azkeneko zeregina da eta bi atalez osatua dago. Alde batetik, ikasleek ikasgelan landutakoaren eta egindako lanaren gaineko balorazioa egin beharko dute –talde txikitan banaturik– eta, bukatzeko, bakoitzak norbanakoaren jardutearen ebaluazio eta berrikuspen kritikoa egingen du.

Hona hemen jardueren sekuentzia eta eginbeharrekoak zehazten dituen taula:

**Jardueren sekuentzia:**

- a) Sarrera
- b) Edukien gaineko ezagutza teorikoa
- c) Planifikazioa
- d) Aplikazioa
- e) Balorazioa eta ebaluazioa

**Jarduerak:**

**a) Sarrera (1.saioa)**

- **1. jarduera:** Jarduera honetan proposamen didaktikoan landuko den gaiari sarrera emango zaio, aldez aurretik eginbeharrekoak zehaztuz eta helburuak aipatuz.
- **2. jarduera:** Narrazio laburren ereduak eta eduki teorikoak lantzen hasi aurretik, ikasleei *Hasierako Galdetegia (A eranskina)* pasako zaie haien irakurketa eta idazketa ohiturez galdetzeko, eta ondoren, talde handian gogoeta bideratzeko.

**b) Edukien gaineko ezagutza teorikoa (2. saioa)**

- **3. jarduera:** Hainbat mikroipuinen irakurketan oinarriturik (*B eranskina*) generoaren ezaugarriak eta bereizgarriak landuko dira. Horretarako, ikasleak binaka edo hiruko taldetan antolatuko dira eta eredu gisa baliatuko diren zenbait kontakizun banatuko zaizkie. Azalpen teorikoei ekin baino lehen, tarte bat (15' gutxi gorabehera) eskainiko zaie adierazitako narrazioak patxadaz eta arretaz irakurtzeko. Ondoren, talde handian irakurritakoaren gaineko iritzia eskatuko da eta mikroipuinak komentatuko dira.
- **4. jarduera:** Banatutako ereduak baliatuz horietan topatzen dituzten ezaugarriak,

baliabideak, teknikak, etab. zehazten saiatuko dira talde handian eta, ariketa bukatutakoan, narrazio laburren bereizgarriak biltzen dituen taula (*C eranskina*) emango zaie jardueran lortu diren emaitzekin erkatu ahal izateko.

**c) Planifikazioa (3. saioa)**

(Aurreko saioan ikusitakoaren errepasso laburra, zalantzak eta kezkek argitzeko)

- **5. jarduera:** Proposamen didaktikoaren helburu nagusiak ikasleen idatzizko eta ahozko adierazpen gaitasunak literatur testuak baliatuz garatzea denez, jarduera honetan hainbat teknika eta tresna eskuratzen ahaleginduko dira. Xedea lortzearen, lehenik, idazketan trebatzeko ariketa batzuk (*D eranskina*) proposatuko dira; bidenabar, sormena eta irudimena lantzen lagunduko dutenak:

→ 1. ARIKETA<sup>1</sup>: Ikasleei mikroipuina idatz dezaten eskatuko zaie. Horretarako, aurrena, elementu abstraktu eta konkretu batean pentsatu beharko dute eta elementu bakoitza papertxo batean idatziko dute. Jarraian, irakasleak papertxoak bi multzotan bilduko ditu. Ikasle bakoitzari bina elementu –abstraktu bat eta konkretu bat– egokituko zaizkio eta horiekin narrazio laburra osatu beharko du.

→ 2. ARIKETA: Berriz ere ikasleei mikroipuina idatz dezaten eskatuko zaie, baina oraingoan, nahi dituzten bi elementu idatzi beharko dituzte paper zati batean. Elementuok edozer gauza izan daitezke: objektua, pertsona, animalia, sentimendua, etab. Irakasleak elementuak banatuko ditu eta ikasleek bi elementu horiek alderatzen dituen narrazio laburra sortuko dute; alderaketa metafora edo konparazio bidez egin daiteke.

→ 3. ARIKETA: Aurreko ariketetako prozedura bera egingen da azkeneko idatzizko jardueran. Ikasleek paper zati batean gaur egungo elementu edo gaia idatziko dute, eta beste zatitxo batean iraganeko elementu edo gaia. Irakasleak paper guztiak bildu eta multzo bakoitzeko elementu bana banatuko die. Esan bezala, ikasleek egungo eta iraganeko bi elementuak kontrastatzen dituen narrazio laburra idatzi beharko dute.

Bigarrenik, ahozko adierazpena lantzeko bestelako jarduerak (*E eranskina*) egingen dira. Horien bitartez ikasleen ahozko konta-teknikari erreparatuko zaio eta ozeneko

---

<sup>1</sup> Eranskinetan ikasgelan banatutako ariketak ageri dira.

irakurketetan oinarrituz, zenbait elementu prosodiko landuko dira; hala nola, intonazioa, ahoskera, etenak, tonua, etab. Hona hemen ariketen azalpena:

→ 1. ARIKETA: *B eranskineko* mikroipuinaren sortatik narrazio batzuk aukeratuko dira eta gelan ozen irakurriko dira. Lehenengo ozeneko irakurketa egin ostean, ikasleei prosodiaz eta elementu prosodikoen garrantziaz mintzatuko zaie. Bereziki, intonazioari, tonuari, etenei eta ahoskerari erreparatuko zaie eta berriz ere, elementu horien egokitasuna zaintzen saiatuz, ozenki irakurtzeko eskatuko zaie. Azkenik, talde handian aurreneko eta ondorengo irakurketak alderatuko dira.

→ 2. ARIKETA: Lehenik, talde handian egunerokoan egiten duten ekintza edo egoera bat deskribatzeko eta ekintza istorio bat kontatzen ariko balira bezala idazteko eskatuko da. Bigarrenik, ikasle bakoitzak sentimendu edo emozio bat –beldurra, alaitasuna, lotsa, ardura, zalantza, etab.– hautatu beharko du eta aurretik sortutako istorioa aukeratutako sentimendua adieraziz kontatzen saiatu beharko du.

#### **d) Aplikazioa (4. saioa)**

- **6. jarduera:** Atal honetan ikasitako eduki teorikoak eta eskuratutako tresnak aplikatuko dira. Horretarako ikasleei mikroipuin bat idazteko kontsigna (*F eranskina*) luzatuko zaie eta saio osoa izanen dute kontakizuna idazteko edo idazten hasteko, etxean bukatzeko aukera ere emanen zaie eta. Narrazioaren luzera eta gaia librean izanen dira eta aurreko saioetan landutako edukien gaineko ezagutza erakustea positiboki baloratuko da.
- **7. jarduera:** Aurreko ariketa egiten hasi baino lehen kontsignan bertan ageri diren arauak eta gomendioak azalduko dira eta jarduera horrekin lortu nahi diren asmo nagusien garrantziaz ohartaraziko zaie.

Hona hemen bi asmo nagusiak:

1. Ikasleek sortzen dituzten narrazioekin inprimaturiko edizioa osatuko da, bide batez, gaur egun nagusitasuna lortzen ari den euskarri digitalaren aldean, euskarri fisikoaren aldarrikapen gisa.
2. Inprimaturiko euskarria ez ezik, ikasle bakoitzak bere lanaren ahozko narrazioa grabatu beharko du eta audio guztiekin entzunezko edizioa ere



eginen da.

**e) Balorazioa eta ebaluazioa (5. saioa)**

- **8. jarduera:** Azkeneko atalean ikasle bakoitzari aurreko saioetan norbanakoak egindako lanaren balorazioa eskatuko zaio, eta honekin batera, proposamen didaktikoaren balorazioa ere. Horretarako *Bukaerako Galdetegia (G eranskina)* izena duen dokumentua banatuko zaie.
- **9. jarduera:** Denbora sobera badago, lanak elkarri pasaz, euren kideek idatzitako testuak irakurtzeko aukera izanen dute.

**2.2.6. Denboralizazioa**

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
			<ul style="list-style-type: none"> <li>● 1. jarduera</li> <li>● 2. jarduera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● 3. jarduera</li> <li>● 4. jarduera</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>● 5. jarduera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● 6. jarduera</li> <li>● 7. jarduera</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>● 8. jarduera</li> <li>● 9. jarduera</li> </ul>	

**2.2.7. Ebaluazio irizpideak**

Helburuak	Ez ditu helburuak eskuratu	Helburuak justu eskuratu ditu	Helburuak ongi eskuratu ditu	Helburuak oso ongi eskuratu ditu
- Narrazio laburren ezaugarriak ezagutzen ditu				
- Narrazio laburretan erabiltzen diren teknika, formula eta baliabide estilistikoak egoki erabiltzen ditu.				
- Mikroipuinak kohesioa,				

koherentzia eta zuzentasuna zainduz ekoizten ditu.				
- Idatzizko ekoizpenean sormen eta irudimena lantzen saiatu dela ikus daiteke.				
- Narrazioak ahoz kontatzeko teknikak ezagutzen ditu eta prosodiaren ezaugarri garrantzitsuak kontuan hartzen ditu.				
- Klasean landutako testuen (ahozko zein idatzizkoak) inguruko ikuspegi kritikoz aztertzen ditu eta klaseko ekintzetan aktiboki parte hartzen du.				
- Ikaskideekin kooperazioz egoki moldatzen da talde lanean.				

Behin helburuak eskuratu diren ala ez zehaztuta, honakoa izanen da atal bakoitzaren balioa zehazten duen taula:

<b>Idatzizko froga</b> → zuzentasuna → hiztegiaren aberastasuna → ikasitako baliabideak bereganatu dira → argitasuna	%30
<b>Ahozko narrazioa</b> → zuzentasuna → argitasuna → hizkeraren erabilera eta elementu prosodikoen garrantzia	%30
<b>Klaseko ariketak</b>	%20
<b>Parte hartzea</b> → aktiboki parte hartzea → interesa erakustea	%20

### **3. ESPERIENTZIA ETA APLIKAZIO DIDAKTIKOA**

Diseinatu den proposamen didaktikoa behin azalduz, ikasgelan haren aplikazioa nolakoa izan den aztertuko da.

Proposamenaren helburu nagusia ikasleen irakurketa eta idazketa-prozesuak landuz, euren idatzizko eta ahozko gaitasunak garatzea da, eta bidenabar, sormena eta literaturaren alderdi interpretatiboa landuz literaturarekiko interesa eta irakurtzearen plazera bultzatzea. Proposamena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleekin burutu da eta ariketa mota hori aplikatzeko erabakia hainbat faktore kontuan izanik hartu da. Hauexek dira eragina izan duten faktorerik garrantzitsuenak: lehenik eta behin, irakurketan eta idazketan gertatzen diren prozesu kognitiboen arteko antzekotasunagatik. Horregatik, bi alderdiak –idazketa eta irakurketa prozesuak– era bateratuan lantzea proposatu da; eta bigarrenik, irakurketa eta idazketa ikuspegi kritikoa eta sormena garatzeko baliabideak eskuratzeko oso baliagarriak izan daitezkeelako.

Hautatutako taldeari dagokionez, DBH 4-ko taldea zenbait arrazoiengatik aukeratu da. Maila horretan 20 ikasle daude eta talde oso handia ez izateak klaseko ekintzak errazago bideratzen laguntzen du. Horrez gain, ikastetxeko mailarik gorenena izanik, ikasleekin testu konplexuagoak lantzea ahalbidetzen du eta gai zehatzen inguruan eztabaidarako aukera gehiago eskaintzen du, eta hortaz, proposamenaren zeharkako helburuetako bat lortzen dela ziurtatu; ikuspegi kritikoa eta iritzi pertsonala garatzea, alegia.

Oro har, taldeak proposatutako jardueri ondo erantzun dien arren, ikasleengan idaztearekiko motibazio falta eta nahigabea sumatu da. Idatzizko testuak ekoiztean, horrelako ariketak inoiz landu ez zituztenez, sarritan zailegiak iruditu zaizkie eta inspirazioa bilatzea kostatu zaie. Hala ere, azken emaitzei erreparatuta egiazta daiteke testu asko originaltasunaren eta idazleen trebetasunaren erakusgarri direla, eta oso interesgarria litzatekeela ikasgelan maizago lantzea.

Aitortu beharra dago denbora mugatzaile izan dela eta proposamen didaktikoari lau saio besterik ez emateko aukera egon dela eta, ondorioz, ariketa batzuk laburtu edo moldatu behar izan ziren, eta balorazioa eta ebaluazioa, esaterako, presentzialik egiteko aukerarik ez zela egon. Bestalde, baliteke lehenengo saioa astunegia suertatzea, narrazio laburren gaineko eduki teorikoak azaltzeari eta mikroipuinak irakurtzeari eskaini zitzaion eta. Bigarren saioan landutako ezaugarri guztiak landu eta horien eredu ziren narrazioak irakurri zituzten eta testuen gainean eztabaidatu zen. Atal honetan ikasleen partaidetza eta motibazioa aipatu behar dira, izan ere, talde handian hitz egiteko eta eztabaidarako gogo nabarmena izan da. Taldeak, oro har, iritziak emateko eta argudiatzeko tresnak erakutsi ditu eta

desadostasunik egotekotan, ikasle guztiak errespetu osoz kideak esandakoa eztabaidatzeko gai ziren.

Azkeneko bi saioetan idatzizko eta ahozko testuak landu ziren eta esan daiteke bi diskurtsoen artean alde nabaria dagoela. Idatzizko testuetan agertzen diren baliabide eta teknika diskurtsiboak menderatzen zituztela esan daiteke, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa osoan zehar idazketa landu dutenaren seinale. Ahozkotasunean aldiz, eztabaidarako jarrera positiboa aipatu den arren, testutik kanpo dauden elementuak kontuan hartzeko orduan zailtasunak ikusi dira. Ikasgelan testuak ahoz ozenki irakurri direnean, hasiera batean espero zen bezala, oso irakurketa estatikoak eta lauak izan dira, elementu prosodikoei arretarik jarri gabe. Horren ostean, ikasleei prosodiaren garrantziaz mintzatu zitzairen eta ahozko testuen komunikazio asmoa eta zentzua egoki adierazteko ariketak burutu ziren – intonazioa, ahoskera, etenak, etab. lantzeko ariketak–.

Proposamenaren helburuetako bat ez zen arren, bigarren saioeko une batean – *Banpiroa ispiluaren aurrean paratzen denean* mikroipuina irakurri zenean– literaturatzat zer har daitekeen eta zer ez eztabaidatu zen eta gaia oso interesgarria gertatu zitzaizela aipatu behar da, “hitzaren artearen eta hitzaren funtzio komunikatibo soilaren”<sup>2</sup> arteko eztabaida erakargarria sortu baitzen.

Laburbilduz, diseinatu diren jarduerak lantzeak izan dituen indarguneen artean esan daiteke ikasleei testuen irakurketa arina gertatu zaiela eta, salbuespenak salbuespen, oro har aukeratu diren mikroipuinak gustatu zaizkiela. Horren ondorioz, proposatu diren ekintzetan aktiboki parte hartu dute eta gehienetan emaitza positiboak lortu dira.

Ahulezien artean, ordea, batzuetan ariketak errepikakorrak izan dira eta astunak egin daitezke. Egia da hain denbora laburra izanik, agian hobe zatekeen edukiak murriztea eta soilik atal batean sakontzea; izan ere ahozko adierazpena hankamotz geratu dela esan daiteke. Modu horretan, idazketari saio bat baino gehiago eskaini lekioke eta ikasleek euren testuak ekoizteko tarte luzeagoa izan. Hala ere, arestian aipatu bezala, emaitzak ikusita esperientzia onuragarria izan dela ondoriozta daiteke eta proposamena aurrera eraman eta gero geratzen den sentsazioa positiboa da.

#### **4. ONDORIOAK**

Proposamenaren aplikazioaren eta izandako esperientzia didaktikoaren ostean, esan daiteke ikasgelan sormena eta irudimena lantzeko jarduerak diseinatzeak ikasleek literaturarekiko duten atxikimenduan eragina izan dezakeela. Eskolan aztertzen eta idazten

---

<sup>2</sup> Komatxoaren artean ageri da ikasleek horrela formulatu zutela adierazteko.

diren testu akademiko horiez haratago –azalpen testuak, deskribapenak, argudio testuak, etab.-- idazketa libre maizago landuko balitz, idaztearen ekintzaren ikuspegi ezkorra gutxitu liteke eta, era berean, literatur lanak irakurtzeko motibazioa handitu.

Arestian aipatu lez, irakurketa eta idazketa-prozesuek ezaugarri kognitibo bertsuak partekatzen dituzte. Irakurketa zenbat eta gehiago landu, orduan eta idazketa-teknika eta tresna gehiago barneratuko dira eta, ondorioz, testuak idazteko nahian ere eragina izango du, emaitza oparoak lortzen direla ikusiko baita. Beste modu batera esanda, irakurmena, idazketa eta sormena elkarreraginean dauden prozesuetan har daitezke eta gainera, bata bestearen baldintzatzaile ere badira.

Ikastetxean literatura nola ikasten den aztertu ondoren, esperientzia didaktikotik atera diren ondorio zehatz horietatik ondorio zabalago eta orokorragoak sortu dira eta berriz ere lanaren abiapuntu izan den artikuluari helduz, testuan lantzen den hipotesia –gazteek gero eta ezagutza gutxiago dutela literaturaren inguruan– zenbateraino egiaztatuta dagoen ez dakigun arren, gutxi irakurtzen delako pertzepzioa orokorra dela esan daiteke.

XXI. mendean zehar hezkuntzaren alorrean aldaketa ugari gertatu dira eta horietan nagusia hezkuntza ulertzeko garatu diren ikuspegi berriak dira. Hezkuntza ikasleei informazioa transmititzeko tresna izateari utzi dio eta eguneroko ekintzetan baliagarriak izango diren ezagutzak barneratzeko eta praktikan jartzeko lanabes gisa interpretatzen da. Aitzitik, irudipena dut aldaketa batik-bat esparru teorikoan gertatu dela eta alderdi praktikoan, ordea, ezagutza eduki kontzeptualen bereganatzean oinarritzen dela.

Alexis del C. Rojasek (2006) egin zuen azterketa baten arabera, literatura-egitearen benetako pedagogia irakaskuntza testuinguru batean lantzen denean suertatzen da. Irakasleek eta hezitzaileek testu literarioaren inguruan sortzen diren sentimenduen eta pentsamenduen ezagutza intersubjektiboa lortzeko estimulatzeko eta zentzumeneren horizontea irekitzeko helburua dute. Prozesu horretan irakasleak modu aktiboan, parte-hartzailean eta ondo definitutako helburuekin egindako hezkuntza sustatu behar dela aipatzen du. Ikasleak ezarri behar duen elkarrizketa-prozesua modu eraginkorrean bideratu eta xedeak argi izanda, irakurritako edukia irudikatzeko gai izan behar du. Ildo berean, aldarrikatzen du literaturaren didaktika ikuspegi funtzionaletik irakatsi behar dela, praktika-alternatibak izango dituen eta historizismo-irizpideak kontuan hartuz ebaluatuko dena. Horren ondorioz, literaturak hizkuntza sortzen du, errealitatearen eta errealitateari buruzko bestelako ikuspegi batzuk bereganatzen ditu eta gogoeta, argudiaketa, analisia eta zenbait hizkuntza-trebetasun kognitibo sustatzen ditu.

Horren harira, hezkuntzak literatura irakasteko egiten duen lehenengo akatsa hizkuntza eta literatura bereiztea dela uste dut. Ikusi dugun bezala, testu-iruzkinean oinarritutako ereduak literatur-testua hizkuntza gaitasuna garatzeko baliatzen du, hau da, literatura hizkuntzaren bereganatze eta ezagutze prozesuaren barneko alderditzat du. Dena den, metodologia hori ez da egun nagusi dena eta oraindik ere zehaztu beharra dago. Era berean, ereduak bestelako ahuleziak dituela esango nuke, hala nola, literatura klasikoetatik aldentzea. Testuak kontatzen duenari gehiegizko arreta jarri beharrean, testuak berak zer funtzio betetzen duen eta zertarako lantzen ari garen kontuan hartuko bagenu, eduki teorikoek ez lukete horrenbesteko garrantzirik izanen. Hala, esaterako, testu klasiko baten eta XXI. mendeko obra baten arteko erkaketa egin genezake, baliabide eta estilistika kontuei erreparatzeko eta, gerora, beharbada autoreen gaineko informazioa eskaini, oinarri teoriko batzuen ezagutza bermatze aldera.

Azken hori adibide bat besterik ez da, baina honekin guztiarekin adierazi nahi dudana da edozein testu lantzen dugularik, aurretik helburua zein den zehaztu beharko genukeela. Era honetan, irakasleok literaturaren formakuntza eta autoformakuntza –asko irakurtzea– sendoa jaso beharko genuke eta eskatzen duen ahaleginaz gain, curriculumak eskaintzen dituen aukerak urriak eta denbora mugatua dela aitortu behar da. Hala ere, kurtsoan zehar landuko dugun literatura ahalik eta modurik eraginkorrean jorratzen saiatu beharko genuke eta Matxainek planteatzen duen hirugarren galderari dagokionez, nire irudikoz, hezkuntzaren ardura ez litzateke soilik literatura irakastea izan behar, baizik eta ikasleek literaturarekiko jarrera positiboa izan dezaten estrategiak garatzea eta, horrela, gazteek literatura ezagutzeko gogoia areagotzea. Estrategia horiek garatzeko, noski, literatura irakatsi ohi den modua aldatzea ezinbestekoa da, eta alor horretan irakasleok badugu zer eskaini literaturaren didaktikari.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- ÁLAMO FELICES, F. (2010). El microrrelato. Análisis, conformación y función de sus categorías narrativas. *Signa: Revista de la Asociación Española de Semiótica*, (19), 161-180. Interneten eskuragarri:  [<https://doi.org/10.5944/signa.vol19.2010.6233 >](https://doi.org/10.5944/signa.vol19.2010.6233) [Azk. ikus. 2022/06/09]
- ALONSO, I. (2008). *Euskal literaturaren irakaskuntza hego euskal herriko batxilergoan*. (Doktorego tesia, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea).  
Interneten eskuragarri:  [<http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ldurre\\_Alonso\\_TESI.pdf >](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ldurre_Alonso_TESI.pdf) [Azk. ikus. 2021/02/08]
- COLOMER, T. (1996). La evolución de la enseñanza literaria. *Aspectos didácticos de Lengua y Literatura*, 8, 127-171. Interneten eskuragarri:  [<http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/la-evolucion-de-la-ensenanza-literaria/html/fd44e955-2086-4bd1-8e6b-f0c144443564\\_10.html >](http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/la-evolucion-de-la-ensenanza-literaria/html/fd44e955-2086-4bd1-8e6b-f0c144443564_10.html) [Azk. ikus. 2022/06/01]
- COMPAGNON, A. (2008): *¿Para qué sirve la literatura?*. Barcelona, Acantilado.
- DUBLÍN, E. (2010). *Perludios, Interludios y Minificciones*. Bogotá: Adéer Lyniad.
- ENCINAR, Á., & VALCÁRCEL, C. (2011). Más por menos. *Antología de microrrelatos hispánicos actuales*. Madrid: Sial (Narrativa, 70).
- ETXANIZ, X. (2017ko urriaren 13a). Gero eta gutxiago eta gero eta okerrago irakurtzen da. *El Correo*. Interneten eskuragarri:  [<https://www.elcorreo.com/zurekin/gero-gutxiago-gero-20171014134105-nt.html >](https://www.elcorreo.com/zurekin/gero-gutxiago-gero-20171014134105-nt.html) [Azk. ikus. 2021/12/12]
- EUSKOKULTUR & PAMIELA, (2018-2019). *Mikro-ipuín lehiaketa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- GALEANO, E. (1989). *El libro de los abrazos*. Madril: SIGLO XXI.
- GARCÍA, J. (d.g.). *Didáctica de la Lengua y Literatura*. Universidad de Almería.  
Interneten eskuragarri:  [<https://www.juangarciaunica.com/Documentos/DLL/Tema3.1.pdf >](https://www.juangarciaunica.com/Documentos/DLL/Tema3.1.pdf) [Azk. ikus. 2022/02/24]

GONZÁLEZ COBAS, J. (2014). Cómo, por qué y para qué usar microrrelatos en las clases de ELE. *Biblioteca virtual redELE*. Interneten eskuragarri:

<[Cómo, por qué y para qué usar microrrelatos en las clases de ELE \(educacion.gob.es\)](http://www.educacion.gob.es)> [Azk. ikus. 2022/06/05]

MARÍN MARTÍNEZ, J. M. (1989). El comentario de textos: repaso histórico y bibliográfico de un recurso didáctico. *Revista de educación*.

MARTÍNEZ EZQUERRO, A. (2017). De la retórica y poética a la literatura: contexto educativo, disciplinas y manuales en el siglo XIX. *Dicenda*, 35, 185.

Interneten eskuragarri:

<<http://hdl.handle.net/11162/70176>> [Azk. ikus. 2022/06/10]

MATXAIN, K. (2015eko maiatzaren 15a). Nola egin aurre ikasgelan testuliburuaren aginteari. *Argia*. Interneten eskuragarri:

< <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2463/literatura-irakaskuntzan> >  
[Azk. ikus.: 2022/02/10]

MONTERROSO, A. (1998). *Obras completas (y otros cuentos)*. Barcelona: Anagrama.

NÚÑEZ, G. (2016). Modelos de educación literaria en el moderno sistema escolar. *Lenguaje y Textos*, (43), 23-32. Interneten eskuragarri:

<<https://riunet.upv.es/bitstream/handle/10251/80204/5824-20567-1-PB.pdf?sequence=1>>

[Azk. ikus.: 2022/02/10]

NÚÑEZ, G., & FERNÁNDEZ-FÍGARES, M. C. (2005). *Cómo nos enseñaron a leer* (Vol. 242), 75-82. Ediciones AKAL.

ROJAS, A. D. C. (2006). La enseñanza de la literatura: ¿ un proceso dialógico?.

*Educere*, 10(35), 645-650. Interneten eskuragarri:

<[http://ve.scielo.org/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S1316-49102006000400010&lng=es &nrm=iso&tlng=es](http://ve.scielo.org/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1316-49102006000400010&lng=es &nrm=iso&tlng=es)> [Azk. ikus. 2022/06/08]

WALIÑO, J. (2012). *Mikroipuin-labea*. Zumaia. Interneten eskuragarri: <[Mikroipuin-labea \(mikroipuinak.eus\)](http://mikroipuinak.eus)> [Azk. ikus. 2022/06/10]

WISLAWA, S. (2012). *Poesía no completa*. Madrid: S.L.Fondo de Cultura Económica de España.

ZALDUA, I. (2018). *Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak*. Donostia: Elkar.



## **ERANSKINAK**

(A ERANSKINA)

### **HASIERAKO GALDETEGIA**

1. Irakurtzea gustuko duzu?
2. Zenbatero irakurtzen duzu?
3. Zer motatako testuak irakurtzen dituzu?
4. Zer motatako euskarritan irakurtzen dituzu testuak?
5. Irakurtzea eta irakurketa literarioa gauza bera iruditzen zaizkizu? Erantzuna ezetz bada, zein alde ikusten duzu? Beraz, zenbatero irakurtzen duzu?

6. Ikasgelan nola lantzen duzue literatura? Nola uste duzue landu beharko litzatekeela?

(B ERANSKINA)

### MIKROIPUINAK

#### ERRONKA

Erronka jo diot neure buruari: —Ezetz ipuin laburrez osatutako bloga abiatu! Pentsakor gelditu naiz, neure buruarekin haserre: “Posible al da horrelako erronka jotzea?”. Ez dakit zer erantzun. Ez dakit erronkari aurre egiteko gai naizen, ipuin laburrak astero, hamabostero asmatu eta idatzi beharra: formatu txikian, Interneten, pantailan irakurtzeko modukoak... Egin dezaket? Auskalo! Baina erronkak maite ditut. —Baietz egin! —erantzun diot oldarkor neure buruari. Eta mikroipuin-labea piztu dut.

Josu Waliño, *Mikroipuin-labea* (2012)

#### GREBA

Irratian izan zuen grebaren berri: “Maiatzak 21, langile guztiak deitzen ditugu grebara!”, oihukatzen zuen sindikalista batek irratiko bozgorailutik. “Bizi dugun prekarietate laboralaren aurka, langileon sufrimenduaren aurka, esplotatzaileen aurka, maiatzaren 21ean denok grebara!”. Bihotza piztu zitzaion hitz horiek entzunda. Bere egunerokoa aldarri sutsu horretan islatuta ikusi zuen, eta maiatzaren 21ean berak ere greba egitea erabaki zuen. Eguna iritsi zenean goiz hasi zuen bere borroka. Langileen eskubideak aldarrikatzen zituzten kartekez eta paskinez josi zuen lantokia. Berehala iritsi zitzaizkion, ordea, esplotatzaileen lehen kexak: —Jo, ama! —entzun zuen goizean goiz—. Non da gosaria? —Gosaria, bazkaria, arropak, gelak, garbiketak... —erantzun zuen harro—. Gaur zuek moldatu beharko duzue! Eta bere zapaltzaileak sukaldean zur eta lur utzita, korridorera joan zen eguneko lehen manifa abiatzera.

Josu Waliño, *Mikroipuin-labea* (2012)

#### DENA

- Wikipedian den-dena dago.
- Ez esan ergelkeriarik.

Testuak lantzeko eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko proposamen didaktikoa

- Egia da –umeak, irmo–. Begiratu bestela zure izena.
- Ni ez nago Wikipedian –zorionez, pentsatu du agureak–. Edonola, utzi ordenagailu hori. Eta itzuli besteekin; tarta jatera doaz.

Neskak ospa egin du. Ane du izena; bilobaren gelakoa da.

Halere, Wikipedia ireki eta bere izen-abizenak idatzi ditu. Badaezpada.

Bertan dago ordea. Sarrera labur-labur batean, 1980ko soldatzaile baten aurkako hilketan batean parte hartu zuela zehazten duena.

Eta –hasieran ez da ohartu–, bere jaiotza dataren ondoan, heriotzarena. Gaurkoa hain zuzen.

Teklatuaren gainean topatu dute. Bihotzekoa, antza.

Inork ez du bilatu, jakina, soldatzaile haren izena: hala eginez gero, sarrera labur-labur batean, Ane izeneko birbiloba bat izango zukeela ikusiko luke.

Den-dena dago Wikipedian.

Iban Zaldua, *Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak* (2018)

### **LUZE ETZANDA**

Luze etzanda, zapala da mundua. Zergatik esan ote diet ikasleei egunkariak gezurrez josita daudela? Egia gainbaloratuta dago. Ez da nork bere gezurrak sinetsi besterik. Luze etzanda, biharko egitekoak labur zerrendatu ditut: alaba zaharrena futbolera eraman, gazteenari aspertzearen onurak azaldu, tomateak landatu, itsuek koloretan amesten ote duten igarri, afaltzeko pizza erosi –asteazkena da– eta, eguraldi-iragarpena betetzen bada, goizean izarak garbitu gauez berrerabiltzeko gisan. Luze etzanda, luzeagoa da mundua. Ezin dut begirik bildu. Atzo hil nintzela dio gaurko egunkariak; bihar dela hileta. Ez dakit joaterik izango dudana. Tomateak landatzeke eta izarak garbitzeke dauzkat oraindik.

Sustrai Colina, *Mikro-ipuina lehiaketa* (2018-2019)

### **ARRANTZALE BATZUEK HONDOTIK ATERATAKO BOTILA<sup>3</sup>**

Arrantzale batzuek hondotik botila bat atera zuten.

Botilak paper bat zekarren, bertan idatzirik: “Lagundu, hemen nago. Ozeanoak irla huts batera eraman ninduen. Ur ertzean nago eta laguntza espero dut. Hemen nago!”

- Ez du datarik. Segur aski beranduegi da. Botilak denbora asko emango zuen flotatzen.
- esan zuen arrantzaleak aurrena.

- Eta lekua zehazkabea da. Ez dakigu zein ozeanotan dagoen. –erantsi zuen beste batek.

---

<sup>3</sup> Jarraian ageri diren lan guztiak euskarara itzuliak eta moldatuak izan dira.

– Ez beranduegi, ez urrunegi. Uhartea hemen dago nonahi. – gaineratu zuen hirugarrenak.  
Giroa deseroso bihurtzearekin batera isiltasuna etorri zen. Egia orokorrek arazo hori dute.

Wisława Szymborska, *Sól* (1962)

G. Beltranek itzulia

### **BELDURRA**

Goiz batez untxi indiar bat oparitu ziguten.

Kaiolatuta iritsi zen etxera. Eguerdian kaiolako atea ireki nion.

Ilunabarrean etxeratu nintzen eta bertan aurkitu nuen: kaiola barruan, barroteei itsatsita, askatasunaren ikaraz dardarka.

Eduardo Galeano, *El libro de los abrazos* (1989)

### **IZAN EZIN DIRENAK**

Txakur bat erostearekin amesten dute arkakusoek,  
eta izan ezin direnek aberats izatearekin.

Egun magikoren batean bat-batean, euria egin dezala zorte on.

Baina, zorionez, gaur ez du euririk egin, ez atzo, ez bihar, ez inoiz.

Ezin izan direnek erregu egiten badute ere, ez dute zorionik ikusten. Ezkerreko eskuan  
azkura izanda ere, ez du euririk egiten.

Eskuineko oinaz jaikita ere, ez du euririk egiten.

Izan ezin direnak: inoren seme-alabak, ezeren jabe.

Erbiak aurreraka eginez, bizitza hiltzen, izorratuak, ezin baino izorratuak.

Ez direnak, diren arren.

Hizkuntzarik ez, bai ordea, hizketa.

Arterik ez, bai ordea, artisau-lana.

Kulturarik ez, bai ordea, folklorea.

Aurpegirik ez, bai ordea, besoak.

Gizakiak ez direnak, giza-baliabideak direnak.

Izenik ez dutenak, zenbakiak dituztenak.

Historia unibertsalean lekurik ez dutenak, herriko prentsa gorriaren kronikan ageri direnak.

Izan ezin direnak, hiltzen dituen balak baino balio gutxiago duten horiek.

Eduardo Galeano, *El libro de los abrazos* (1989)

### **DINOSAUROA**

Testuak lantzeko eta literaturarekiko zaletasuna bultzatzeko proposamen didaktikoa

Dinosaurioa esnatu zenean han zegoen oraindik.

Augusto Monterroso, *Obras completas y otros cuentos* (1959)

### HIRU DESIO

Aurrenekoz eskuzabala izan zedin eskatu zuen. Gainerakoak oparitu.

J.M. García Navarro, *V Premio de Nanorrelato*-ko irabazlea (2015)

### BANPIROA ISPILUAREN AURREAN PARATZEN DENEAN

Esteban Dublín, *Perludios, Interludios y Minificciones* (2010)

(C ERANSKINA)

### MIKROIPUINEN EZAUGARRI NAGUSIAK (González, 2014<sup>4</sup>)

EZAUGARRIA	
Laburtasuna	Testu laburrak dira eta laburtasuna erlatiboa dela ikus daiteke.
Fikzionalitatea	Fikziozko egoerei edo gertaerei buruzko ekintzak kontatzen dituzte.
Narratibotasuna	Gertaeren kronologiari buruzko baliabideak ugariak dira.
Kondentsazioa	Lerro gutxitan diskurtso osoaren esanahia eta adierazkortasuna garatzen da.
Gai anitzak	Askotariko gaiak lantzen dituzten kontakizunak aurki daitezke.
Kultura	Hizkuntza baten eta hizkuntza horren testuinguruaren adierazpen kultural gisa uler daiteke.
Osotasuna	Narrazioaren testuingurua laburra den

<sup>4</sup> Laneko 1.4.2. puntutik lortutako informazioarekin taula bat egin da ikasleei banatzeko.

	arren, testuak komunikazio-asmoa du eta funtzio jakin bat betetzen du.
<b>Alderdi pragmatikoa</b>	Ironia, humorea, zentzu bikoitzak, etab. ageri dira mikroipuinetan.
<b>Aldakortasuna</b>	Idatzizko trebetasunak indartzeko baliagarriak izateaz gain, ahozko adierazpena, gramatika, lexikoa eta hizkuntzaren erregistro eta funtzioak lantzeko aukera ematen dute.

(D ERANSKINA)

## 1. ARIKETA

---

→ Pentsatu eta paper zatitxo batean elementu ABSTRAKTU bat idatzi.

→ Beste paper zatitxo bat hartu eta elementu KONKRETU bat idatzi.

- Irakasleak papertxo guztiak bi multzotan banaturik bilduko ditu, eta ondoren, ikasle bakoitzari multzo bakoitzeko elementu bana emango die.
- Ikasle bakoitzak egokitu zaion elementu abstraktu eta konkretuarekin kontakizun laburra idatzi beharko du.

## 2. ARIKETA

→ Pentsatu eta paper zatitxo batean nahi dituzun bi elementu (objektua, pertsona, animalia, sentimendua...) idatzi.

- Irakasleak papertxo guztiak bilduko ditu, eta ondoren, ikasle bakoitzari bi emanen dizkie.
- Ikasle bakoitzak egokitu zaizkion elementuekin kontakizun laburra idatzi beharko du.

→ Baldintza: bi elementuen arteko alderaketa egin behar da, konparazio edo metafora bidez.


### 3. ARIKETA

---

→ Pentsatu eta paper zatitxo batean GAUR EGUNGO elementu (gaia ere izan daiteke) bat idatzi.

→ Beste paper zatitxo bat hartu eta IRAGANEKO elementu bat idatzi (gaia ere izan daiteke)

- Irakasleak papertxo guztiak bi multzotan banaturik bilduko ditu, eta ondoren, ikasle bakoitzari multzo bakoitzeko elementu bana emango die.
- Ikasle bakoitzak egokitu zaizkion elementuekin kontakizun laburra idatzi beharko du.



(E ERANSKINA)

## 1. ARIKETA

---

- B eranskinako mikroipuinen sortatik narrazio batzuk aukeratuko dira eta gelan ozen irakurriko dira.
- Lehenengo ozeneko irakurketa egin ostean, ikasleei prosodiaz eta elementu prosodikoen garrantziaz mintzatuko zaie.
- Bereziki, intonazioari, tonuari, etenei eta ahoskerari erreparatuko zaie eta berriz ere, elementu horien egokitasuna zaintzen saiatuz, ozenki irakurtzeko eskatuko zaie.
- Aurreneko eta ondorengo irakurketak alderatuko dira talde handian.

## 2. ARIKETA



- Guztion artean egunerokoan egiten duten ekintza edo egoera bat narratibotasunez –istorio bat kontatzen ari tuko bagina bezala– deskribatuko da. Etxetik eskolarako bidea, esaterako.
  
- Ikasle bakoitzak sentimendu bat aukeratuko du –beldurra, lotsa, alaitasuna, ezjakintasuna, zalantza, kezka, etab. – eta sortutako istorioa hautatutako sentimendua adieraziz kontatzen saiatuko da.

## MIKROIPUINA IDAZTEKO KONTSIGNA

---


**Zeregina:** Mikroipuina idatzi.

**Gaia:** Librea.

**Luzera:** Librea.

- Aurreko saioetan landutako edukien gaineko ezagutza agertzea positiboki baloratuko da.

(Beheko tarte zirriborrea egiteko erabil dezakezu)



(G ERANSKINA)

### **BUKAERAKO GALDETEGIA**

1. Gustukoak izan dituzu klasean landutako mikroipuinak? Zein bai? Zein ez? Zergatik?
2. Baliagarriak suertatu zaizkizu idatzizko eta ahozko adierazpena eta sormena lantzeko egin diren ariketa eta jarduerak? Erantzuna baiezkoa zein ezezkoa izan, arrazoitu zure erantzuna.
3. Etorkizunean mota horretako ariketak egiten jarraitzea gustatuko litzaizuke? Arrazoitu zuren erantzuna.
4. Aurreko galderan baiezkoa eman baduzu, interesik duzu genero, testu edo autore jakin bat lantzearekin? Zein?
5. Oro har, saioetan gustura ibili zarela esango zenuke? Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?
6. Azkenik, hasierako galdetegian erantzutakoarekin alderatuta, literatura ikastearen

kontzeptua alda daitekeela uste duzu?